

Elsa Oliarj-Ines eta Bastien Cosson: «Paristik mundu osoari hitz egiten genion, baina ez jende guziari»

Artetxune berria zabaltzera doaz Elsa Oliarj-Ines eta Bastien Cosson: Artetxe. Atharratzen izanen da erakusketagunea. Kafea hartzeko tokia ere izanen da, liburuz inguraturik.



Elsa Oliarj-Ines eta Bastien Cosson, ekainaren 17an, Atharratzen, Artetxe arte gunean. HITZA



Leire Casamajou Elkegarai

ATHARRATZE-SORHOLÜZE - 2024KO EKAINAREN 23A - 05:00



Entzun 00:08:28



Uhaitzaren bazterrean, mendien artean eta barnealdeko herri baten astelehen eguerdiko isiltasunean, uztailaren 6an estreinatuko dute Atharratzen Artetxe artegunea, eta horren azken antolaketetan ari dira Elsa Oliarj-Ines (Atharratze, 1988) eta Bastien Cosson (Urketa, 1988). Artistak dira biak, eta lehengo nekazaritza kooperatibaren egoitzan instalatu ziren igaran urtean. Estreinaldirako, *Karbone bilana eta hazkunde-tasak* erakusketa aurkeztuko dute, hamar artistaren obrekin. Bi kontzertu ere izanen dira: Prison Food Sucks eta Oihan Oliarj-Ines.

Parisen bizi izan zarete urte luzez. Nondik heldu zaizue Atharratzeko proiektu berria?

ELSA OLIARJ-INES: Artetxe proiektuaren elkarte Palette Terre duzu. Hori Parisen genuen elkarte duzu, eta ideia zuzun horrekin muntatzea proiektua. Bastien ilki duzu Parisko Arte Ederren Eskolatik 2014an. Eta ohartu duzu artearen mundua izugarri zerraturik zela; ez zizun nahi iguriki besteen baieztapena ukaitea. Orduan deliberatu dizu leku baten muntatzea gure apartamentuan: bagenizun ganbara eta beste gela bat, eta, saloi bat egin ordez, galeria bat muntatu genizun. Hori 2014an hasi genizun, 2020ra arte. Lehenik Bastienek bere lana erakusten zizun, eta gero bere lagunen lana, eta bere lagunen lagunen lana... Egin ditizugu 50 bat erakusketa: hilabete oroz igande arrastirian estrena etxean.

Beraz, proiektu berri bat baino gehiago, lekua aldatzen duzuen proiektua da?

OLIARJ-INES: COVID-19arekin ez zuzun haboro posible, eta deliberatu dizugu ekuratzea Palette Terre; eta ikusi ditizugu hemengo [Artetxe eginen duten guneko] argazki zenbait, eta hor ohartu gituzu bazirela gure etxeko 8m2ak, edo 600m2... Enbeia ematen dizu. Zeren leku batean izatea baina ez haboro proposamenik egitea sobera ments genizun. Ni prest ninduzun duela denbora zenbait arra jiteko, baina Bastien ez batere. Hark artearen mundua Parisen baitzuen: ez zekizun nola egin kitatzeko mundu hori eta, halere, nonbait existitzeko. Beraz, bazuzun amiñi bat galtoa nola egin partitzeko, nola egin ez Parisen izateko, baina, halere, jendea gure mundura eramateko?

BASTIEN COSSON: Nebike entzuteko da ermeiritik etortzeko zailtasunak dituen



Gaur



Azken berriak



Entzun BERRIA



Nire BERRIA

SENTSAZIOA EMATEAN DUE HONAKO ETENUELAN EN AZAGUA GUREKETA HONUELA IZATEKO.

Berdintsua da: Pauen Arte Ederrak egitean, sekula ez nuen usteko artista bilakatzen ahalko nintzenik, ez bainuen artista profesionalik ikusten ene inguruan. Eta Parisera iristean, ikusi nuen biziki onartua zela eta sistema ekonomiko bat bazela hori ahalbidetzen zuena.

«Bastienek artearen mundua Parisen zuen: ez zekizun nola egin kitatzeko mundu hori eta, halere, nonbait existitzeko. Beraz, bazuzun amiñi bat galtoa nola egin partitzeko, nola egin ez Parisen izateko, baina, halere, jendea ene mundura eramateko?».

ELSA OLIARJ-INES

Atharratzeko Artetxe guneko ko-sortzailea

Azkenean, halere, itzultzeko erabakia hartu zenuten.

COSSON: Ene buruari galdegiten nion nola jarraituko nuen artista izaten hona etorriz. Beraz, tresna bat sortu behar izan dugu han nituen hausnarketak hemen segitu ahal izateko: leku hori.

OLIARJ-INES: Iragan agorrilan itzuli gituzu, eta iragan dizugu urte osoa hemen lanak egiten. Gure lehen helburua zuzun zabaltzea sosik gabe, ez baitugu oraino deus ere. Baina nahi genituzun gure gauza erakutsi, zeren segur nuzu gero atzemanen ditugula jendea edo sos laguntzak gure laguntzeko. Guretako inportanteena duzu maite dugunaren egitea. Zerbait egitea eta gero instituzioak sar daitezen, baina ez beste zentzuan.

Nola antolatua duzue Artetxe?

OLIARJ-INES: Baduzu kafegune bat, edo liburutegi bat hobeki erran, non posible den zerbaiten edatea, eta erakusketagunea. Etorkizunean beharbada leku bat filmen so egiteko ere bai, eta, etorkizun oraino urrunagoan, erresidentziagunea artistentzat. Bastienek segitzen dizu tindua egiten eta nik filmak egiten: egunean zehar lekua guretako ere baduzu, lan egin dezagun, eta gero badituzu zabaltze tenoreak, 16:00etatik 19:00etara.

Uztailaren 6an zabalduko duzue. Nola pentsatua duzue egun hori?

OLIARJ-INES: Izanen duzu erakusketa kolektibo bat. Izanen dituzu Bastienen tinduek, besteon artean. Eta nehi-ukun dizu segidan letura bat egin artisten eta



Gaur



Azken berriak



Entzun BERRIA



Nire BERRIA

COSSON: Berriz pentsatzen nuen laborarien urte hatsarreko protestei, eta aldarrien artean bada bat artisten aldarrien bera dena: prekaritatetik ilkitzea. Erraten dute anitzez sobera lan egiten dutela eta horren parean saria ez dela egokia, sos laguntzei esker baizik ez direla bizi; alta, ezinbesteko lanbidea da, eta denak horretaz biziki harro dira. Eta pentsatu nuen harrigarria dela, zeren dena ekartzen ahal baikenioke artistaren estatutuari. Gero, afera da nola ilustratu erakusketa hori, pentsamendu hori?

Nola ilustratu eta nola transmititu, ezta? Ez duzue Parisko publiko bera ukanen.

COSSON: Prentsa agiria prest da abantzu, baina konplikatua da atzematea nola jendeari zuzendu, eta, bereziki, jakitea nori zuzentzen gatzaizkion. Parisen sare hori erraza da atzematea, eta osatua genuen, gainera; hona etortzean ez dakigu gehiago ongi. Aldi berean, ulertzen dugu Atharratzeko jendeari zuzentzen garela, edo ikastolako burasoei, edo kostaldeko kultur eragile saldoari, edo Bordelekoari edo Pariskoari oraino segitzen gaituena. Beraz, ez dituzu hitz berak erabiltzen.

OLIARJ-INES: Hori duzu interesgarria aldaketan: lehen zinez jende gutiri mintzo gintuzun, jadanik bazekitenak zer egiten genuen, zerendako, nola...

«Konplikatua da atzematea nola jendeari zuzendu eta, bereziki, jakitea nori zuzentzen gatzaizkion».

BASTIEN COSSON

Atharratzeko Artetxe guneko ko-sortzailea

COSSON: Aldi berean, New Yorki, Londresi eta Berlini zuzentzen ginen. Parisen ginen eta mundu osoari hitz egiten genion, baina, azkenean, ez jende guziari: mintzo ginen Mendebaldeko metropoliari, ingurune horri. Orain egin nahi duguna elastikoago izatea da, atek zerratu gabe ere edo bizkarra eman gabe. Beste erronka bat izanen da Hegoaldeko jendearekin harremanak egiten hastea, ez baititugu anitz ezagutzen, eta bizki aberatsa baita hangoa ere.

GAIAK

Euskal Herria

Ipar Euskal Herria

Zuberoa

Arteak eta kultura

Oliari-Ines. Elsa



Gaur



Azken berriak



Entzun BERRIA



Nire BERRIA

Bi hamarraldi. Milaka aldi.

Hogei urtez, milaka euskaldunen babesari esker, aldian aldiko kazetaritza independente eta profesionala egin ahal izan dugu. Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena

IRUZKINAK

Ez dago iruzkinik



Iruzkin bat egin

ORDENATU

DATA



Gaur



Azken berriak



Entzun BERRIA




Nire BERRIA

INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU



Norberak eskatuta, adio

ARANTXA IRAOLA



«Hiltzen ikasteko era» bada, eta laguntza ere bai

ARANTXA IRAOLA



Hitzaren jabe, eutanasiara: lau bizipen

ARANTXA IRAOLA - MIKEL ELKOROBerezibar Beloki



Gaur



Azken berriak



Entzun BERRIA



Nire BERRIA

NABARMENDUAK




Belen Gonzalez:
«Gure ibaiek eta
itsasoek merezi
duten kalitateagatik
borrokatu behar
dugu»

ITSASO JAUREGI



Lizar Begoña:
«Oraindik
maitasunari
buruzko
sentimendu
zaharrak dauzkagu»

IÑIGO ASTIZ



Amaitu al dira
sarrerak?

URTZI URKIZU

Petti:
onak c
ilunak
bester

GORKA EROK



Gaur



Azken berriak



Entzun BERRIA



Nire BERRIA

Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia

IKUSI >

Arratsaldekoa

IKUSI >

Goizekoa

IKUSI >

Badok

IKUSI >

Astekaria

IKUSI >

Kinka

IKUSI >

Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.



Zure posta elektronikoa

Harpidetu



Gaur



Azken berriak



Entzun BERRIA



Nire BERRIA